

## HARRERA PLANA

Harrera-plan honen bidez, ikasturtean zehar edo ikasturte hasieran ikasle berriei etorrera emateko prozedura ezarri nahi da.

### FAMILIAREN HASIERAKO KONTAKTUA

Familia iritsi berriak Zuzendaritza-taldearekin eta aholkulariarekin izango du hasierako kontaktua.

Lehenengo unean Zuzendaritza-taldeko batek matrikula egiteko datuak jasoko ditu eta ikastetxeko funtzionamendu, antolaketa eta zerbitzuei buruzko informazioa emango die. Familiak behar den dokumentazioa ekarriko du (familia-liburua, errolda-agiria, gurasoen identifikazioaren txartelak). Bere egoeraren berri emango digu, ahal den neurrian behintzat. Behar izanez gero, Udaleko Gizarte Zerbitzuei emailez eta telefonoz etorri berri den familiaren egoeraren berri emango zaio.

Datu hauekin tutorearentzat harrera-txostena beteko da (1. eranskina Ikaslearen Oinarrizko Informazioa). Familiaren egoerari buruzko informazioa eskuratzeko ere une egokia da.

Familiarekin izaten diren lehenengo elkarrizketetan ematen den informazioa oinarrizkoa eta ulertzeko modukoa izatea komeni da. Gai hauek azalduko dira:

- o Ikastetxearen funtzionamendu eta informazio orokorra
- o Ordutegiak, jarduerak eta eskolara huts egitearen inguruko protokoloa.
- o Ikasleak behar duen materiala.
- o Ikastetxearen beste zerbitzuak eta jarduerak: jantokia, eskolaz kanpoko jarduerak, irteerak, txangoak, eta abar.
- o Materiala eta jantokia ordaintzeko beka eta laguntzak eskuratzeko informazioa eskaini.
- o Guraso Elkartearen funtzionamendu eta ardurak azaldu.

o Ikastetxea erakutsiko diegu: gelak, gimnasioa, mediateka, jantokia,...

Ikasturte hasieran banatzen den lehenengo koadernoan, bai eta egutegia ere, emango zaizkio iritsi berri den familiari.

Bestalde, aukera izanez gero, aurreko ikastetxearekin harremanetan jarriko gara, bai email edo telefonoz, ikaslearen egoera akademikoa ezagutzeko eta honela adinari dagokion mailan ezarri edo errepikapena aholkatzeko. Beti kontutan izanik errepikapena dela kasu hauetan lehenengo laguntza garrantzitsua eta pisuzkoa.

Ikaslea zein taldetan kokatuko dugun erabakitzeke, taldeko ikasleen kopurua eta ezaugarriak kontuan izango dira. Ikaslea heldu baino lehen, Pedagogia batzordearen bidez dagokion zikloari berria emango zaio, etortzen denerako harrera prestatzeko.

## **TUTOREAREN ZEREGINA:**

- Tutoreak bere gelan harrera-talde bat osatuko du, berriari lehenengo momentutik laguntzeko.
- Gelako kide bat edo batzuk aukeratuko dira ikaslearen laguntzaile-irudia burutu dezaten.
- Gelan ekintza bereziren bat antolatu aurkezpenerako.
- Beste irakasle, jantokiko begirale, atezaina... aurkeztu.
- Ikaslea dituen irakasle guztiekin eta aholkulariarekin, (ikasleak atzerritik badatoz Hipiarekin ere) bildu ondoren, hasierako ebaluazioa egin. (2.eranskina). Ikaslearen hezkuntza-premiak eta gaitasunak antzemateko baliabiderik garrantzitsuena behaketa da, gelan dagoen bitartean.

## HIZKUNTZA INDARTZEKO PROZESUA.

Atzerritik datozen ikasleei gure hezkuntza-sistemara egokitzeko programa prestatuko zaie lehen bi asteetan. Honetarako hasierako ebaluazioa egingo zaie.

Familiaren hizkuntza arrotza denean (bi hizkuntz ofizialak) eta baliabiderik ez dagoenean, Lurralde Ordezkaritzako itzulpen-zerbitzua eskatuko dugu. Horrela langile kualifikatuak erabiliko ditugu informazio-truke argia, osoa eta isilpekoa izateko.

Tutoreak, zikloan aritzen diren irakasleen hasierako ebaluazioaren emaitzak jasoko ditu. Tutorea hiptarekin, eta ez badago aholkulariarekin, egin behar duen banakako plana edota norbanako plana egiteko bilduko da. Irakasle-talde osoak parte hartu behar du gelako jardueretan tutorearekin koordinatuta, eta hizkuntzaren erabilerari eman behar zaio lehentasuna. Gogoan hartu behar da irakasle guztiak bihurtzen direla hizkuntza-irakasle.

Gelatik kanpo egon behar badu, hobe da hizkuntza bera ikasgai den gaietan edo hizkuntza bera lan-tresna bakarra denean izatea.

## HARRERA-PLANAREN LABURPEN-KOADROA

NORK	NOREKIN	ZER
ZUZENDARITZA-TALDEAK	Itzulpen-zerbitzuarekin	Beharrezkoa denean itzultzailea eskatzea.
ZUZENDARITZA-TALDEAK	Ikaslearen familiarekin	Matrikulazioa egitea. Informatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>· Eskola-sistemari buruz</li> <li>· Ikastetxea erakustea</li> <li>· Ikastetxeko zerbitzuei buruz</li> <li>· Ikastetxeko arauen berri eman</li> <li>· Beste gizarte-zerbitzu batzuei buruz</li> </ul> Tutorea aurkeztea (erabakita badago)
ZUZENDARITZA-TALDEAK	Zikloko irakasleekin /Pedagogia batzordeko partaideekin/ irakasleak ez diren langileekin	Ikasle berriari buruzko informazioa ematea.
ZIKLOKO IRAKASLEAK ETA AHOLKULARIA		Etorrera eta harrera aurreikustea: prestaketa eta antolaketa. Banakako plana egitea.
TUTOREAK	Erreferentzia-taldearekin	Gelaren harrera prestatzea eta garatzea. Beste ikaskideak prestatzea prozesuan laguntza emateko: laguntzailea bideratu. Gela antolatzea: lekua, ekintzak.
TUTOREAK	Ikasle berriarekin	Ikaslea irakasleei aurkeztea. Erreferentzia-gelan harrera egitea: aurkezpena eta jarduerak. Hasierako balorazioa egitea. Ordutegia azaltzea. Laguntzaile irudia izendatu
TUTOREAK	HIPI /aholkulariarekin	Hezkuntzako interbentzio-plana egitea. <b><u>Behar izanez gero</u></b>
HIZKUNTZA  INDARTZEKO IRAKASLEAK	Ikasle berriarekin	Hasierako balorazioa egitea. Hizkuntza-programa egitea. <b><u>Behar izanez gero eta aukerak izanez gero lortzeko</u></b>

## ERANSKINAK

### 1.-Ikaslearen Oinarrizko Informazioa

#### 1. DATU PERTSONALAK

Ikaslearen izena	
Ikaslearen abizenak	
Jaioteguna	Herrialdera heldu zen data
Jatorria. Estatua	Hiria/herria
Ama hizkuntza	

Helbidea	
Telefonoa	

#### 2. FAMILIAREN DATUAK

Amaren izena	Jatorria	Hizkuntza
Aitaren izena	Jatorria	Hizkuntza
Anai-arrebarik?		
Beste seniderik etxean?		
Guraso eta ikastetxearen arteko harremanetarako hizkuntza:		

#### 3.- AURREKO ESKOLATZEA

Ikasmaila:	Zenbat urte eskolan?	Etenik?
Ikastetxea eta herria:		
Eskolako hizkuntza:		
Beste eskola datuak: (dokumentazioa...)		

## 2. Hasierako balorazioa egiteko adierazleak

### HIZKUNTZA: EUSKARA/GAZTELANIA ULERMENA ETA MINTZAMENA

EDUKI-BLOKEAK	ADIERAZLEAK	BAI	EZ
ULERMENA	<p>Berari buruzko galdera errazak erantzuten ditu.</p> <p>Argibide errazak jarraitzen ditu, ahozko erantzunik eman gabe.</p> <p>Hurbileko gaiei buruzko elkarrizketak ulertzen ditu:</p> <p>eskola, lagunak, familia...</p> <p>Testu erraz batean adierazten dena ulertzen du.</p> <p>Arretaz entzuten du jardueran interesa erakutsiz.</p>		
MINTZAMENA	<p>Ahoz, adierazten ditu bere beharrak eta nahiak, ulertarazteko adina.</p> <p>Oinarrizko hiztegia erabiltzen du: izen ezagunak, tresnak eta ekintzak.</p> <p>Beste bati buruzko informazio sinplea ematen du.</p> <p>Bere esperientzien berri ematen du, elkarrizketa bideratzen duen heldu baten laguntzarekin.</p>		
ESTRATEGIAK	<p>Ez duela ulertzen adierazten du, keinu bidez azalpenak</p> <p>edo errepikatzea eskatuz.</p>		

## IRAKURMENA ETA IDAZMENA

EDUKI-BLOKEAK	ADIERAZLEAK	BAI	EZ
IRAKURMENA	<p>Idazkeraren norabidea ikasia du.</p> <p>Alfabeto idatziaren grafiak ikasiak ditu</p> <p>Erritmo, doinu eta ahoskera egokiz irakurtzen du.</p> <p>Maila arrunteko testu idatziak ulertzen ditu: oharrak, istorioak...</p> <p>Testu bateko oinarrizko ideiak eta informazio garrantzitsua bereizten ditu.</p> <p>Testu-motak bereizten ditu: berria, ipuina, oharra...</p>		
IDAZMENA	<p>Alfabeto-grafiak idazten ditu letra larriz eta xehez.</p> <p>Idazteko ohitura du: behar bezala esertzen da eta erritmo onean idazten du.</p> <p>Idaztearen konbentzioak ezagutu eta zaintzen ditu (oinarrizko ortografia, puntuazioa, letra larriz noiz idatzi...)</p> <p>Helburu bat baino gehiagoko testu sinpleak idazteko gai da: kontatu, eskatu, gogoratu...</p>		
ESTRATEGIAK	<p>Ez duela ulertzen adierazten du, keinu bidez azalpenak edo errepikatzea eskatuz.</p> <p>Zailtasunak dituenean galdetu egiten du.</p> <p>Idatzi aurretik gogoeta egiten du.</p> <p>Irudiak erabiltzen ditu testua ulertzeko.</p>		

## MATEMATIKA

EDUKI-BLOKEAK	ADIERAZLEAK	BAI	EZ
ARITMETIKA	<p>Zenbakiak irakurri, idatzi eta ordenatzen ditu ....</p> <p>–(e)raino</p> <p>Ohiko zeinu matematikoak zein diren badaki.</p> <p>Bere zikloari dagozkion eragiketak egiten ditu.</p> <p>Eragiketa errazak egiten ditu buruz.</p> <p>Problemen enuntziatuak ulertzen ditu.</p>		
NEURRIAK	<p>Gorputz-neurriak intuitiboki ezagutzen ditu: arra , oina...</p> <p>Neurri-unitate oinarrizkoenak ezagutzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Luzera</li> <li>· Edukiera</li> <li>· Masa</li> <li>· Denbora</li> </ul> <p>Estimazioak egiten ditu eta neurri egokia hautatzen du.</p> <p>Neurri-unitateak erabiltzen ditu.</p> <p>Neurrien testuinguruan problemak ebazten ditu.</p>		
GEOMETRIA	<p>Perspektibadun marrazkiak egiten ditu.</p> <p>Ohiko forma geometrikoak ezagutzen ditu.</p> <p>Objektu batek espazioan duen posizioa adierazten du.</p> <p>Leku ezagun bateko plano eta krokisak interpretatzen ditu.</p>		
INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA	<p>Taula eta grafiko bidez hainbat informazio interpretatzeko gai da.</p>		



## EGOKITZAPENA. SOZIALIZAZIOA

ADIERAZLEAK	BAI	EZ
<p>Ikastetxea ezagutzen du eta arazorik gabe ibiltzen da ikastetxean zehar.</p> <p>Irakasleen egitekoetara moldatzen ari da.</p> <p>Jatorriko hizkuntza eta kultura naturaltasunez aipatzen ditu.</p> <p>Premiak ikaskideei eta irakasleei adierazten dizkie.</p> <p>Elkarrekintza sozialei zuzenean erantzuten hasten da.</p> <p>Eskolako lanetan beste batzuekin aritzen da.</p> <p>Ikaskideekin eta irakasle batzuekin harremanak baditu.</p> <p>Eskolako ohiturak jarraitzen ditu eta jokaera-espektatiben barruan dago.</p> <p>Nabari da familiako hizkuntzan eta kulturaren oinarritzen dela pentsatzeko, komunikatzeko eta esperientzia berriak bereganatzeko.</p>		

# elizalde

 HERRI ESKOLA